

## **EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO UDALBATZARRA**

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko urtarrilaren hogeita zortziko gaueko bederatziak eta hamar minutu direnean, bildu dira, ez ohiko eta urgentziako Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar Zinegotzia

Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti, ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **UDALBATZARRAREN URGENTZIAREN AITORPENAREN ONARPENA.**

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du udalbatzarraren urgentzia aitortzea. Proposamena aho batez onartu dute.

### **BIGARREN PUNTUA:**

#### **ERREZILGO UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO PROIEKTUAREN ONARPENA.**

Alkateak hitza hartuz gaiaren aurrerakinak esan ditu eta urriaren 26ko 13/2009 errege dekretu legearen baitan enplegu eta sostenibilitate lokalerako fondo estatal bat eratu dela aipatzen du. Horren baitan Errezilgo Udalari 67.459,00 euroko dirulaguntza dagokio obra inbertsioak egiteko. Alkateak proposatzen du, Udaletxean igogailua instalatzea. Horretarako Imara ingenieritza taldeari igogailuaren instalatzeko proiektua egiteko eskatu zitzaizen. Egingo diren lanen berri ematen du Alkateak.

Gaia botutara jarri eta bozketa egin ondoren, bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin proiektua onartu da.

**HIRUGARREN PUNTUA:**  
**FONDO ESTATAL PARA EL EMPLEO Y LA SOSTENIBILIDAD LOCAL**  
**PROGRAMAREN BAITAN UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO**  
**PROIEKTUA EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKAERAREN ONARPENA.**

Alkateak goiko puntuan erabakitakoari jarraituz puntu honetan proposatzen da enplegu eta sostenibilitate lokalerako fondo estatala programaren baitan igogailua instalatzeko proiektua egiteko dirulaguntza eskaera egitea onartzea.

Bozketa egitea proposatu du Alkateak eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabaki dute enplegu eta sostenibilitate lokalerako fondo estatalaren baitan Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuaren obrak egiteko dirulaguntza eskaera egitea onartzea urriaren 26ko 13/2009 Errege dekretu legeak jasotzen dituen baldintza guztiak betez.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta hogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.